


OINARRIAK




Album irudidunak egiteko

COMPOSTELA

Nazioarteko XVII. Saria

Santiago de Compostelako Udalaren
 Hezkuntza Departamentuak,
 Kalandraka argitaletxearekin batean,
 Album Irudidunak egiteko "COMPOSTELA"
 Nazioarteko XVII. Sarirako deia egiten du.
 Hauek dira deialdiaren oinarriak:



1. Album irudidunen kategorian sar daitezkeen obrak aurkezten ahal dira Album Irudidunak egiteko "COMPOSTELA" Nazioarteko XVII. Sarira, hau da, irudien eta testuaren bidez egiten diren kontakizunak, testuak eta irudiak elkarren osagarria baitira.
2. Deialdi honen oinarriek haur eta gazteentzako produkzio artistiko eta literarioa sustatzea dute xede.
3. Obrak Iberiar Penintsulako hizkuntzetako edozeinetan aurkezten ahal dira, eta jatorrizkoak eta behin ere argitaratu gabeak izan behar dute nahitaez. Ez da obra onartuko baldin eta beste obra originalen baten egokitzapena bada, edo beste lehiaketaren batean saria eman bazaio. Ez dira onartuko Interneten hiru irudi baino gehiago argitaraturik dituzten lanak, hala nola inteligentzia artifizialaren teknologien bidez sorturiko edota egokituriko lanik ere.
4. Testuaren eta irudien egileak bat edo gehiago izan daitezke, eta edozein nazionalitatetakoak. Ezin dira aurkeztu aurreko urteetako irabazleak eta Kalandraka argitaletxeko langileak.
5. Proiektuak edozein tamaina, teknika edo formatu izan dezake, baina ez da izanen barneko 40 orritik gorakoa, hau da, 40 orrialde izanen ditu gehienez babes-orriak eta azalak kontatu gabe.
6. Lehiaketara aurkezten diren egileek honakoa aurkeztu beharko dute:
 - Testuaren bost kopia.
 - Hiru irudi jatorrizko, eta haietako bakoitzaren koloretako bost fotokopia. Teknika digitala erabili bada, lanaren bereizmen handiko inprimatzeak onartuko dira.
 - Aurkezten den proiektuaren maketa bat burutua. Inprimaturiko bertsio horren diseinua, testua eta irudiak ahalik eta gertuen egon behar dute argitaratuko den liburutik.


7. Obretan ez da egile(ar)en izenik agertuko. Bai, ordea, goiburu bat edo izengoiti bat. Parte-hartzaileen datu pertsonalak gutun-azal itxi batean adieraziko dira. Gutun-azalean, nahitaez, hauxe jarri behar da: kanpoaldean, obraren izenburua edo izengoitia; eta, barnealdean, egile(ar)en izen osoa, posta-helbidea, harremanetarako telefonoa, eta helbide elektronikoa. Gutun-azalaren barrenean, bestetik, NANaren edo pasaporte osoaren fotokopia bat sartu behar da, baita egile(ar)en ohar biografiko labur bat ere.
8. Lanak Santiago de Compostelako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo hara bidali (Salvador Allende lehendakariaren kalea, 4, 15705 Santiago de Compostela. Coruña. Espainia). Gutun-azalean hauxe jarriko da hitzez hitz: «Album Irudidunak egiteko COMPOSTELA Nazioarteko XVII. Saria». Garraio-agentzien bidez aurkezten diren gutun-azalean ez dira sekula agertuko egileen izenak.
9. Lan originalak aurkezteko epea oinarri hauek Coruñako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean irekiko da, eta 2024ko maiatzaren 16an itxi. Postetxeko zigilua ez daiteke izan lanak aurkezteko azken eguna baino geroagokoa. Epaimahaiaren erabakia 2024ko ekaineko bigarren hamabostaldian emanen da.
10. Literaturan eta irudigintzan ospea aitortu zaien pertsonak osatuko dute epaimahaia, zeinak, bere irizpide teknikoari jarraikiz, zer lan saritu erabakiko baitu. Idazkaria entitate antolatzaileek izendatzen duten kidea izanen da. Saria eman gabe gelditu liteke, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.
11. Sari bakarra egonen da, 9.000 eurokoa. Sariari dagozkion atxikipen fiskalak ezarriko zaizkio. Saria ez da ordainduko harik eta egileak lana bukatua eta argitaratzeko moduan aurkezten duen arte. Kalandrakak Iberiar Penintsulako hizkuntza ofizial guztietan argitaratuko du lan saritua (galegoz, katalanez, euskaraz, gaztelaniaz eta portugesez), 2024ko azaroan hain zuzen ere. Horretarako, behar diren argitalpen-kontratuak sinatuko dira. Orobat, argitaletxeak aukera izanen du epaimahaiaren iritziz aipamen berezia merezi izan duten lanak ere argitaratzeko. Horretarako eskubidea urtebetez izanen du argitaletxeak. Handik aurrera, egileak nahierara jokatzeko ahalko du bere obrarekin.
12. Egileak/ek lehen edizioaren eskubideak lagako ditu(zte), eta hala adieraziko da Kalandraka argitaletxearekin sinatu beharreko kontratuan.

13. Lan bukatua 2024ko irailaren 2a baino lehen aurkezteko konpromisoa hartzen dute egileek.
14. Egileek beren gain hartuko dituzte sarira aurkezteko lanen bidalketa-gastuak. Antolatzaileek ez dute beren gain erantzukizunik hartuko baldin eta jatorrizko lanak galdu edo hondatzen badira, edo atzerapenagatik edo hirugarren bati egotz dakioken beste zerbaitengatik lanak lehiaketan onartuak behar ez badira.
15. Egileek eskubidea dute hautatu gabeko lan originalak itzul diezazkietela eskatzeko. Horretarako, helbide honetara idatzi beharko dute, epaimahaiak erabakia hartu eta hilabeteko epean: premiocompostela@kalandraka.com. Egileek beren gain hartuko dituzte bidalketa-gastuak. Horretarako, kontu-zenbaki bat emanen zaie interesatuei, garraio-gastuei dagokien diru-sarrerara egiteko. Epaia eman eta handik hilabete batera eskatzen ez diren obrak suntsitu egingen dira.
16. Antolatzaileek ez dute konpromisorik hartzen saritu gabeko lan originalen egileekin posta edo telefono bidezko komunikaziorik izateko, ezta araudiari buruzko interpretazio edo aplikazioari buruzko argibiderik emateko ere.
17. Oinarri hauek Santiago de Compostelako Udalaren webgunean argitaratuko dira (<http://santiagodecompostela.gal/>), baita haren sare sozialetan ere. Deialdiaren laburpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko da (BDNS). Ondotik, BDNSk haren berri emanen dio Coruñaako Aldizkari Ofizialari, bertan argitaratu dezaten.
18. Oinarri hauetan zerbait geldituko balitz zehaztu gabe, epaimahaiak finkatuko du, edo, bestela, lehiaketaren antolatzaileek. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak ezagutu eta onartzea dakar berekin.

Antolatzen duten erakundeak:

CONCELLO DE SANTIAGO DE COMPOSTELA
Departamento de Educación

KALANDRAKA EDITORA



**CONCELLO DE
SANTIAGO**

Departamento de Educación

Concello de Santiago de Compostela
Departamento de Educación
Edificio CERSIA
Alcalde Raimundo López Pol, s/n - San Lázaro
15707 Santiago de Compostela. A Coruña. España
dptoeducacion@santiagodecompostela.org
www.santiagodecompostela.org
Tfno.: +34 981 554 400 - Fax: +34 981 571 511

Kalandraka

Rúa de Pastor Díaz, n.º 1, 4.º B
36001 Pontevedra - España
editora@kalandraka.com
www.kalandraka.com
Tfno: +34 986 86 02 76
Fax: +34 986 10 02 80

